

Giro ederra eta eguraldi bikaina Lasarte-Oria Bai! Krosean

Ostadar K. Fak antolatzen duen kros herrikoiairen hamahirugarren edizioa ospatu zen atzo.

/Gehigarria



Nikaraguako enbaxadorea Lasarte-Orian izan da

Augusto Zamora enbaxadorea, Ana Urchueguia alkatearekin bildu zen larunbatean eta Udalak bertan egiten duen kooperazio lana azaldu zion.

Larunbatean goizeko 10:00etan Udaletxean Lasarte-Oriako alkateak ongi etorrria eman zion Espainian Nikaraguako enbaxadorea den Augusto Zamorari.

Bisitaren arrazoia, batetik, hemengo Nikaraguako koloniarekin harremana edukitzea izan zen eta bestetik, alkateari kortesiako bisita egin zion Zamorak Lasarte-Oria eta Nikaraguaren artean dagoen harreman onagatik.

Ana Urchueguia alkaterari laguntzeko Martin Moreno, Jesus Zaballos eta Iñaki Mugica ere bertan egon ziren. Herriak Nikaraguan, Somoton hain zuzen ere, egiten duen lana azaldu zioten

denen artean.

Proiektu desberdinak ditu martxan Lasarte-Oriak han. Alde batetik, etxebizitzak eraikitzen ari da, espaloiak jartzen, komunak aldatzen osasungarriagoak izan daitezten eta eguzki plakak ezartzen beste gauza batzuen artean. Bestetik, oraintxe Somotorekin duden harremanak sendotzeko herriak han duen bulegoa ofiala izateko bidean dago, horrela kooperazioa errazagoa izango da. Gainera Euskal Fondearen proiektuen bitartez laguntzarako bideratzen den diru kopuru bat Somotorako bidali du Lasarte-Oriako Udalak.



Ekzerretik hasita, Moreno, Zaballos, enbaxadorea, alkatea eta Mugica.

Faraoiaren Zartzuela

Zartzuela polita izan zen larunbatean kulturetxean ikusgai. Antzinako Egiptoko amodio istorioak kontatu zituzten Sasibil taldekoek. Ahotsak eta musika primerakoak izan zire baita antzezpenak ere. Dantzak ere ikusi ahal izan ziren eta era desberdinetakoak gainera. Jantziak eta dekoratua ere ikusgarriak eta oso politak. Jendeak gustura ikusi zuen emanaldia eta baita parte hartu ere. Ikulegoak aktoreekin batera abestu zuen, hasieran piska bat lotsatuta baina azkenean lasarteoriarrek maila eman zuten. Txalo zaparrada galanta jaso zuten Faraoiaren Zartzuelakoek.



KULTURA ■ 5

Osasunaren inguruko jardunaldiak egingo dira datorren astean kulturetxean

GIZARTEA ■ 3

Lasarte-Oriako udaleko gobernu taldeak 2009. urterako udal zerga eta tasak onartu ditu

Animo korrikalari guztioi!

FISIOTERAPIA ZENTROA

Ibaiondo

Fisioterapia
Errehabilitazioa
Masajeak

Heldie berria:
elkarrekin, bertatik bertara

Ola Kalea, 12 - behe, ezk.
LASARTE - ORIA
Tel / Fax: 943 370 306
fisiobaiondo@gmail.com

 **VENTANAS
SAN MIGUEL**

Zorionak korrikalari guztioi!

Zuregatik oso gertu!

Zirkuitu ibilbidea 10 (gasolindegia eztean)
Tel.: 943 362457 • LASARTE-ORIA

Andoni Segurado
osteopatia eta masajeak

Geltoki, 2-1. ezk Lasarte-Oria **645-712619**

Aste osoan osasunaren inguruan ikasteko aukera kulturetxean

TXINTXARRI

Osasunaren inguruko hitzaldiak emango dira arratsaldero urriaren 27tik 31ra bitartean kulturetxean. Astelehenetik ostirala bitarte gai desberdinen inguruko azalpenak entzun ahal izango dira osasun arloko espezialista ezberdinen eskutik, psikologoak, doktoreak eta urologoak esate baterako.

Gaur hasiko dira Udaleko Ingurumen, Kontsumo, Merkataritza eta Osasuneko Sai-lak antolatzen dituen XVI. Osasun Jardunaldiak.

Bost egunetan zehar osasunaren inguruko gaien informazioa jaso ahal izango dugu arratsaldero Kulturetxean, 19:00etan hasita.

Elikadura eta nortasuna

Gaur bertan, Yolanda Iglesias eta Maddi Arrazola etorriko dira elikadura nahasmenduen inguruan hitz egiteko. Biek psikologoak dira eta Euskadiko Anorexia eta Bulimiaren Kontrako Elkarteak (ACABE) laguntzen dute.

Elikadurako jokabideetan agertzen diren alterazioen jatorria eta kausak azaltzen saiatuko dira Iglesias eta Arrazola hizlariak. Janariarekin zerikusia duten hainbat sentipen eta jarrera hartzen ditu bere barne gai honek eta gaur egungo gizartearen jende askori eragiten dion gaia da, janaria arazo askoren kausa eta ondorioa da eta horrelakoak ulertzeko zailak izaten direnez azaltzen saiatuko dira.

Bihar, nortasunaren nahasmenduen inguruan hitz egiteko Xabier Arrazola psikologo klinikoa etorriko da kulturetxera.

Nahasmendu hauek zer diren eta dauden mota desberdinak azalduko ditu, adibidez, eguneroko erantzukizune



Besteak beste zenbait gaixotasunen bilakaeran elikadurak duen garrantzia eta minbizi kasu konkretuetaz arituko dira hitzaldietan.

malgutasunik gabe erantzuteak edo horien pertzepzioak ondoez pertsonala baldin badakar nortasunaren ez-egokitze baten aurrean gaudela esan daiteke.

Elikaduraren garrantzia

Asteazkenean, hilaren 20ean, Lasarte-Oriako anbulatorioko zuzendaria den M^a Luz Jauregi doktoreak eta Rosa Gainza erizainak emango dute elikaduraren inguruko hitzaldia.

Elikadurak organismoan duen garrantzia azalduko dute, adibidez gaixotasun kardiovaskularren prebentziorako, sistema immunologikoa

Adibidez bihotzeko gaixotasunak saihesteko elikadurak duen garrantzia azalduko dute.

indartzeko edo eta pisua kontrolatzeko.

Minbiziak ere mintzagai

Ostegunean, Javier Azparren doktorea izango da hizlaria. Prostatak minbiziak, emakumeen inkontinentzia eta orhar sexualitateari buruz arituko da. Gizonezkoengan prostatak minbiziak ohi-

koenatariko bat eta inkontinentzia urinarioak arazo sozial, mediko eta higinikoak eragiten ditu, horregatik, garrantzitsua da horien inguruko informazioa edukitzea.

Ostiraleko hitzaldia Luis Bujanda doktoreak eskainiko du, koloneko minbiziaren inguruan. Hau ere maiz azalartzen da eta heriotza tasa

handienekoen artean dago, horregatik garrantzitsua da lehenbailehen detektatzea bizirik irauteko aukerak handiagoak izan daitezen.

Beraz, aste honetan zehar, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 19:00etan izango dira hitzaldiak kulturetxean.

Osasunaren inguruko duda asko argitu ahal izango ditugu eta informazio berria jasoko dugu ezagutzen ez ditugun gaixotasun desberdinen aurrean nola jokatu behar den ikasteko. Asteari hasiera emateko asteleheneko hitzaldia baino lehenago jardunaldien aurkezpen txiki bat egingo da. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Oposizioa aurka egon arren, onartu dira 2009. urterako udal zerga eta tasak

Udalean urriaren 17an egin zuten ohiz kanpoko bilkuran hurrengo urteko zerga eta tasak finkatu zituzten. Gobernu taldeak egindako proposamenak aurrera egin zuen beraien botoekin, gainontzeko guztiek kontrako botoa eman zuten arren.

Txintxarri

Hurrengo urteko eta ikasturteko zerga eta tasa fiskalak aprobatu ziren ostiralean ospatu zen ohiz kanpoko bilkuran, PSE (8) eta EB (1) taldeko botoekin eta EAJ (2), EA (1), PP (1), LOHP (1) eta adskribatu gabe dauden hiru zinegotziek ezekoa eman zuten. Oposizioa aurka egon arren, gobernu taldeko botoak nahikoak izan ziren proposamena aurrera eramateko.

Igoera nabarmenenak

Tasa guztiek hurrengo urtean gora egingo duten arren, lasarteoriatarrek gehien nabaritutako duten igoera zabor biltzetarena izango da. Izan ere, ia %10ko igoera izango du. Hau da, aurtengo herriarrek 61,20 euro ordaindu dituzte zerbitzu honengatik eta 2009. urtean 67,30 eurotako izango da tasa.

Udalak eskaintzen dituen gainontzeko zerbitzuen tasei dagokienaz, ur horniduren zerbitzuak ere igoera nabarmena izango du, %7,14. Musika udal eskolan dabilzarenak ere, 2009-2010 ikasturtean %7ko igoera somatuko dute matrikulazio garaian. Jangelako zerbitzua %5a igoko da 2009-2010 ikasturtean. Haur bakoitzak 93,70 euro ordaintzen ditu egun,

eta datorren ikasturtean, berriz, 98,20 euro ordaindu beharko ditu hileko.

Datorren urteko haur eskolako egun osoko tarifa 291,90 eurotako izango da, aurtengoarekin alderatuta %4,74ko igoera izango du.

Kiroltetako igoera zerbitzu guztietan izango du eragina, batzuek %5a igoko da kuota. Beraz, urtariletik aurrera familiako urteko abonua 210 euro, 18 urtetik gorakoentzat urteko abonua 138 euro eta 18 urtetik beherakoentzat urteko banakako abonua 87 euro ordaindu beharko dira.

Loidi-Barren

Ohiz kanpoko bilkuran Loidi-Barrenen proiektua izan zuten eztabaidagai. Bertan, egitasmoa Murias enpresari esleitu diote. Egitasmoak Babes Ofizialeko 100 etxebizitza eta merkatal gune bat jasotzen ditu. Azken honek eztabaidak sortu zituen. Ana Prieto, LOHPko zinegotziak eta ezker abertzaleko kideek proiektu honek herriko merkataritza txikiak baztertuko dituela salatu zuten. Alkateak, berriz, egitasmoaren alde agertu zen: "herriko merkatal-gintza dinamizatzeko eragile garrantzitsua izan da". Etxebizitzei dagokienaz, ordea, denak ados agertu ziren •



Aurreko ikasturtean Tripontzi jangelan bazkaltzen zuten haurrak

Datorren urterako onartu dituzten zergak eta tasak

Zerga: ibilgailuak

- Autoak, 9 eta 11,9 zaldi fiskal bitartekoak
- Autoak, 12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartekoak

Tasak: kirol zerbitzuak

- Familiako abonua, urtekoa
- Adindunen banakako abonua, urtekoa
- Adingabeen banakako abonua, urtekoa
- Sarrera, 18 urtetik gorakoentzat
- Sarrera, 18 urtetik beherakoentzat

Tasak: eskola-jantokia

- Hileko, errolatutako haurrentzako
- Hamar otorduko bonua, errolatutako haurrentzako

Tasak: musika-eskola, ikasturtea

- Musika txokoa (4-7 urte), musika-hizkuntza eta musika tresna errolatutako haurrentzako
- Musika hizkuntza + musika tresna, errolatutako haurrentzako
- Korua, errolatutako haurrentzako
- Kamara, errolatutako haurrentzako
- Armonia, errolatutako haurrentzako

Tasak: kulturetxea

- Zine aretoaren erabilera, orduko
- Zine aretoaren erabilera, 8 ordutik gora
- Aldagelak eta dutxak erabiltzeagatik gehitzen dena
- Hitzaldi aretoaren erabilera, orduko
- Bilkura-gelen erabilera, orduko
- Erakusketa aretoaren erabilera, 10 eguneko

Tasak: udalaren euskaltegia

- Ikasturte osorako matrikula, astean 2 ordu
- Ikasturte osorako matrikula, astean 3 ordu
- Ikasturte osorako matrikula, astean 5 ordu

Tasak: hilerriko zerbitzua

- Nitxo indibidualak, 10 urtera arteko epea
- Hilobi amankomunak, 10 urtera arteko epea
- Panteoiak, 50 urtera arteko epea

Tasak: zabor-bilketa

- Etxez etxeko bilketa

Tasak: zahar-egoitzako zerbitzuak

- Egoiliar autonomoa hileko, 5 urteko aniztasunez errolatuta
- Egoiliar ezindua hileko, 5 urteko aniztasunez errolatuta

Tasak: haur-eskola

- Egun osoko tarifa, hileko
- Egun erdiko tarifa, hileko
- Bazkaria, hileko

2008

2009

73,00 euro
130,00 euro76,82 euro
132,01 euro200,00 euro
132,00 euro
83,00 euro
5,00 euro
3,10 euro210,00 euro
138,00 euro
87,00 euro
5,20 euro
3,30 euro93,70 euro
46,50 euro98,20 euro
59,20 euro233,50 euro
432,55 euro
39,10 euro
117,35 euro
220,50 euro249,85 euro
462,83 euro
41,84 euro
125,56 euro
235,94 euro286,90 euro
2001,20 euro
40,65 euro
52,50 euro
21,10 euro
189,25 euro300,50 euro
2096,30 euro
42,60 euro
55,00 euro
22,10 euro
198,20 euro405,00 euro
600,00 euro
996,00 euro424,20 euro
628,50 euro
1043,30 euro870,50 euro
437,75 euro
7752,65 euro940,10 euro
472,80 euro
8372,90 euro

61,20 euro

67,30 euro

1.103,43 euro
1.305,30 euro1.155,80 euro
1.367,30 euro278,50 euro
234,00 euro
66,90 euro291,70 euro
245,10 euro
70,10 euro



**Negu honetan,
ahaztu hotza.**

**ESKAITZA
PAREGABEA**

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosaten
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da ICredigas). Gauko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa guxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jarzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketak, aparteko aurrekontuak izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza altxa egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**



Lasarte-Oria Bai!



Garaipena David Martinentzako berriz

Gizonezkoak

1.- David Martin	33:36
2.- Xabier Miranda	34:09
3.- Iñaki Bodegas	35:30
4.- Andoni Illaramendi	35:33
5.- Alberto Ibañez	35:35
6.- Jonan Rodriguez	35:36
7.- Iñaki Pelayo	35:40
8.- Lander Zabala	35:48
9.- Endika Garzia	35:59
10.- J.A. Soto	36:04

Emakumezkoak

1.- Amaia Ostolaza	41:01
2.- Pili Bodegas	41:46
3.- Idoia Eceiza	42:25
4.- Aitziber Ibarbia	43:22
5.- Jaione Galdos	43:38
6.- Maribel Peña	43:41
7.- Rosa Uribe	44:45
8.- Rosa M. Luena	45:19
9.- Marina Gallego	46:39
10.- Arantxa Eizagirre	43:17

Elbarriak

1.- J. Antonio Iglesias	33:35
2.- Pier Miura	33:04
3.- Iñaki Iraola	36:16
4.- Hilario Olano	36:18
5.- Imanol Martinez	40:39
6.- Patxi Fadrique	47:09
7.- Mikel Poza	48:00
8.- M. Goikoetxea	49:23
9.- Christ. Caldibouge	49:24

Herritarrik

1.- David Martin	33:36
2.- Andoni Illaramendi	35:33
3.- Endika Garzia	35:59
4.- Jose L. Delgado	36:43
5.- Raul Gomez	37:59
6.- Raul Tejado	38:16
7.- Julen Ollokiegi	39:21
8.- Iker Juanena	39:27
9.- Mikel Izagirre	40:14
10.- Juanan Centeno	40:20

Sailkapen guztiak
www.ostadarkf.org eta
www.txintzarri.info
helbideetan

MAPFRE




CAJA MADRID ek
delegatutako bulegoa

Loyarte aseguruak S.L

Geltoki kalea 8 • Tel.: 943 360268 • Faxa: 943 360546 • LASARTE-ORIA



**Zorionak
korrikalari
guztioi!**

Lasterketa amaitu duten herritarren denborak



1	DAVID MARTIN BLAZQUEZ	0:33:36
2	ANDONI ILLARRAMENDI SAGARNA	0:35:33
3	ENDIKA GARZIA EZAGIRRE	0:35:59
4	JOSE LUIS DELGADO ARENALES	0:36:43
5	RAU GOMEZ MARGALLO	0:37:59
6	RAUL TEJADO MUÑOZ	0:38:16
7	JULEN OLLOKIEGI BIURDARENA	0:38:52
8	IKER JUANENA SANCHEZ	0:39:27
9	MIKEL IZAGIRRE ARAMENDI	0:40:14
10	JUANAN CENTENO	0:40:20
11	TOÑO PEREZ RODRIGUEZ	0:40:41
12	JUAN M ^o IGNACIO BALSERA	0:41:15
13	IANKI SUDUPE NOEVES	0:41:25
14	PILI BODEGAS PRIETO	0:41:46
15	XABIER ESNAOLA BEREZIARTUA	0:41:56
16	TOMAS GONZALEZ BARDON	0:41:57
17	RAMON ACOSTA REY	0:42:29
18	MARKOS BUJANDA TRINCADO	0:42:35
19	CARLOS MARTIN LAZCANO	0:42:37
20	RAUL BARRERA DANIEL	0:42:39
21	OSCAR GANDIA PASUAL	0:42:39
22	GUILLERMO TROMBOTI CORTEJARENA	0:42:47
23	JAVI TRANCHE AGUIRRE	0:42:57
24	MARTXELO SANCHEZ FERNANDEZ	0:42:58
25	PABLO UCERO ARSUAGA	0:43:00
26	IBONI URDANPILLETA LIZARDI	0:43:02
27	RAFAEL RUIZ ATXIAGA	0:43:04
28	JOSE IGNACIO ELVIRA SANCHEZ	0:43:13
29	IVAN HARA MARCOS	0:43:22
30	JON MARCOS MOLINA	0:43:27
31	JOSE ANTONIO TUDERO MUÑOZ	0:43:37
32	JOSEBA LIZAGA ITURKIOZ	0:44:03
33	MIKEL VILLARROYA MAKAZAGA	0:44:08
34	LEONARDO CABALLERO MATEOS	0:44:24
35	ARITZ CORCUELA IZAGUIRRE	0:44:32
36	JOSEBA IPARRAGUIRRE USARRALDE	0:44:52
37	FEDE OTAEGI FINO	0:44:53
38	JOSE ANTONIO KURIEL JIMENEZ	0:45:08
39	JOXE GOIKOTXEA NIETO	0:45:13
40	IGOR ARANDEN IBARZABAR	0:45:13
41	IANKI LETAMENDI BELAMENDIA	0:45:15
42	JOSE MIGUEL GONZALEZ FELIPE	0:45:16
43	JOSE LUIS ARZALLUS SILVA	0:45:21
44	IANKI MANGAS RUIZ	0:45:22
45	ROBER REDONDO INGELMO	0:45:36
46	AITOR ARRIETA MARCOS	0:45:36
47	ATOR AMANTEGI NOGUES	0:45:37
48	IANGO ARIETA MARCOS	0:45:46
49	TXEMA ENCINA ELOLA	0:46:08
50	JOSEBA UBEGUN LIZASO	0:46:14
51	SERGIO RIVERA DOMINGUEZ	0:46:14
52	OROITZ ALTUNA IBARGUREN	0:46:19
53	ROBERTO REBE BUSTO	0:46:19
54	GAIZKA ORMAZABAL ORTEGA	0:46:33
55	MIKEL ORMAZABAL GARMENDIA	0:46:38
56	EDUARDO ORMAZABAL GARMENDIA	0:46:39
57	PEDRO GOIKOTXEA NIETO	0:46:41
58	UNAI LIZASO HUEGIN	0:46:42
59	LORDI ETXEONDO IZAGUIRRE	0:46:44
60	LUIS MIGUEL GARCIA CALLEJA	0:46:45
61	IANKI FERNANDEZ HOYUELOS	0:46:48
62	JOSE RAMON MENDIZABAL GENTE	0:46:53
63	CARLOS BIENZOLA GARCIA	0:46:56

64	TOMAS MAIZ ZALDUA	0:47:08
65	TXETXU MERCHAN VILLARON	0:47:08
66	IKER ETXANIZ RIGOIEN	0:47:31
67	ANDONI GOMEZ IRAZU	0:47:33
68	IGOR UNANUE URDAPILLETA	0:47:50
69	AITOR URIARTE GOTI	0:47:51
70	MIKEL ESCAÑO BECERRIL	0:47:59
71	MIGUEL ANGEL MARTIN AZCONA	0:48:04
72	NIEVES CIVICOS MARCOS	0:48:09
73	IANGO GOMEZ BAYOT	0:48:09
74	EDUARDO RIVAS CLEMENTE	0:48:11
75	TOMAS ARRUTI ALDALUR	0:48:11
76	IANKI ALKORTA IRURETAGOENA	0:48:12
77	JONATHAN FLORES ALBA	0:48:19
78	IANKI RIVERA PRIETO	0:48:20
79	JAVIER RUIZ GUTIERREZ	0:48:33
80	MANUEL NORIEGA DIEZ	0:48:34
81	JOSE IGNACIO MENDILUCE ARISTONDO	0:48:39
82	AITOR ZELARAIN YEREGI	0:48:40
83	BEÑAT MORALES ALBA	0:48:44
84	JAVIER OLAZAGOTIA RODRIGUEZ	0:48:52
85	JORGE SAINZ MAZA ALONSO	0:48:53
86	CARLOS MARTINEZ PINDADO	0:49:03
87	GORKA ALVAREZ ESTEBAR	0:49:03
88	XABIER PRADA FERNANDEZ	0:49:04
89	JAVI MARTINEZ URRUZOLA	0:49:07
90	GORKA MENDIZABAL AIZPURUA	0:49:09
91	MIKEL SANSORCAZ	0:49:15
92	MIKEL CORTA ALBIZU	0:49:25
93	MANUEL MENDEZ	0:49:28
94	SALVADOR TUDELA SEGUER	0:49:31
95	EDUARDO FRANCO IGLIESAS	0:49:33
96	IANGO CANTERA PEREZ DE EULATE	0:49:36
97	FRAN ARIZTIMUÑO ZABALETA	0:49:42
98	IANKI BLANCO ALKORTA	0:49:42
99	OSKAR SOLANO BILBAO	0:49:45
100	JAVIER MONTEJO FERNANDEZ	0:49:51
101	ION ORMAZABAL SALEGUI	0:49:52

102	PATXI CASTRO PIÑIÑO	0:49:52
103	XABIER OTAEGI OLASAGASTI	0:50:00
104	BEÑAT GARCIA ESCRIBANO	0:50:16
105	BORJA HUERGA HERRERA	0:50:16
106	JAVIER ROLANO MARCOS	0:50:19
107	DIEGO EGIZABAL OLLOKIEGI	0:50:29
108	EDUARDO GALARDI	0:50:37
109	AITOR ERAUSKIN ARANBURU	0:50:42
110	MANU PAINO RUBIO	0:50:45
111	IANGO VALDIVIA CALVO	0:50:50
112	XABIER ARTEAGA IZAGIRRE	0:50:56
113	JOSE CALVO CASTRO	0:50:56
114	MANOLO LOPEZ GUITIAN	0:51:00
115	IANKI CELORRIO AMONARRAIZ	0:51:02
116	OLATZ AROZENA ISASA	0:51:03
117	TERE DE CELIS BAÑOS	0:51:10
118	JON PELLO ARTETXE MENDIZABAL	0:51:11
119	UNAI REBE IGARTUA	0:51:11
120	CARLOS GONZALEZ GONZALEZ	0:51:12
121	JUAN CARLOS SAEZ UÑA	0:51:15
122	TXEMA IBARBIA ZABALETA	0:51:16
123	JESUS BALERDI IRIBARREN	0:51:18
124	JUAN JOSE MOLANO BERMEO	0:51:18
125	IANKI CORCUELA INES	0:51:31
126	IANKI ALTUNA SAEZ	0:51:31
127	LUIS MANUEL URBANO FRANCO	0:51:34
128	IVAN GARCIA CABALLERO	0:51:36
129	UNAI YEREGI LAGALA	0:51:40
130	JAIME BLANCO SANCHEZ	0:51:45
131	IVAN OJEDA GIRALDES	0:51:51
132	OSCAR SANCHEZ HERRAEZ	0:52:13
133	MIKEL MARTIJA LOPEZ DE LUZURIAGA	0:52:16
134	ASIER GOIKOTXEA OJANGUREN	0:52:26
135	AURELIO MUÑOZ REDONDO	0:52:44
136	NIKOLAS CALLETAS SECO	0:52:51
137	JESUS AROZENA ISASA	0:52:58
138	AITOR ARANBURU PINO	0:53:03
139	JOSE JOAKIN PEÑA GARCIA	0:53:05

140	CARLOS BLANCO SANCHEZ	0:53:06
141	JUAN MARI ARTOLA SUKIA	0:53:14
142	JESUS GASALLA MARTINEZ	0:53:22
143	JUAN ANTONIO VALDIVIA BARRANCO	0:53:22
144	JON VILLASECA MERCHAN	0:53:30
145	AITOR LANDABEKEA RODRIGUEZ	0:53:31
146	JUAN MARI SAROBE GABIRONDO	0:53:33
147	ROBERTO LAHIDALGA INIGUEZ	0:53:42
148	MIGUEL ANGEL GARCIA GONZALEZ	0:53:48
149	LEIRE PAINO RUBIO	0:53:55
150	PAKO VALDIVIA BARRANCO	0:53:59
151	CARLOS RAMAJO	0:54:15
152	JON ENSAL ANDRES	0:54:27
153	XABIER SEDANO AGIRRE	0:54:30
154	JOSEAN HERNANDEZ BLANCO	0:54:44
155	RICHARD MARCOS MARTIN	0:54:46
156	IOSU CURIEL YARZA	0:54:47
157	ANDONI SALSAMENDI RODRIGUEZ	0:54:51
158	SANTIAGO URTIZBEREA VEGA	0:54:56
159	PATXI VAQUERIZO GOMEZ	0:55:02
160	EUGENI OJANGUREN ELKOROBARRUTIA	0:55:13
161	EGOITZ INSAUSTI AZALDEGI	0:55:24
162	CRISTIAN MIRANDA LEGORBURU	0:55:25
163	RAMON SALAZAR BADIOLA	0:55:30
164	MAITE SALAZAR BADIOLA	0:55:31
165	LEIRE FERNANDEZ DE LEZEA YARZA	0:55:31
166	IBAN PEREZ-EGEA PEREZ	0:55:35
167	GORKA YEREGI LAGALA	0:55:41
168	JOSEBA FERNANDEZ URRETAIBIZKAIA	0:56:00
169	IVAN MARTIN OTAMENDI	0:56:02
170	RAUL MOLANO NARCISO	0:56:03
171	ANTONIO GALAN PAVON	0:56:04
172	IMANOL ALDABAZAL GOIZUETA	0:56:05
173	JOSE MANUEL BARRIO MUÑOZ	0:56:06
174	JOSE MIGUEL VILA LARRAINGA	0:56:09
175	AITOR ARISTONDO AGUIRRE	0:56:21
176	ROBERTO LOPEZ CANAS	0:56:21
177	DIEGO ELVIRA SANCHEZ	0:56:27

178	JUAN MARI GASTESI ZABALETA	0:56:43
179	ANTONIO URRUZOLA OSTIGOSA	0:56:48
180	NAIARA ALENDILUCE ERKIZIA	0:57:04
181	IANGO CALVO MOLINOS	0:57:05
182	JUANJO MARTIN GONZALEZ	0:57:21
183	OLATZ MARTIARENA LASKIBAR	0:57:25
184	IGNACIO DOYHARZABAL AZURMENDI	0:57:25
185	ABDON FERNANDEZ GRANADO	0:57:35
186	FRAN PUERTAS SOTO	0:57:50
187	MIGUEL ANGEL CALLE PRIETO	0:58:06
188	EULOGIO DE LA SERNA VELASCO	0:58:31
189	PEIO LIZARRAGA BORDA	0:58:32
190	FCO JAVIER TORIBIO	0:58:37
191	M. ANGEL SANCHEZ AGUADO	0:58:56
192	TXEMA BERASATEGI INTXAUSTI	0:58:57
193	JAVIER CABO MARTIN	0:58:57
194	AITOR SOROZABAL PORTU	0:59:00
195	CESAR DIEZ SANCHEZ	0:59:00
196	EDORTA ALDABAZAL GOIZUETA	0:59:08
197	ENEKO ALKORTA LARBURU	0:59:10
198	GOIO JAKA AUZMENDI	0:59:25
199	FCO JAVIER RODRIGUEZ SERRANO	0:59:40
200	IANKI RACAMUNDE AMIL	0:59:40
201	ALAZNE BADIOLA ARRASATE	0:59:43
202	JOHAN BEIDARRAIN ETXEBESTE	0:59:44
203	IGOR ARISTIZABAL LARRAURI	0:59:44
204	JOSE FELIX SOLANO MENA	0:59:54
205	FERNANDO AYARTE EGIRAZU	0:59:58
206	CRISTIANO ACETI	1:00:17
207	OIHANA SALAZAR BADIOLA	1:00:27
208	PATXI XABIER OLASAGASTI ETXEBESTE	1:00:35
209	RAXEL MERINO GONZLEZ D. LANGARICA	1:00:35
210	CESAR RUFO CRESPO	1:00:36
211	JAVIER YUBERO ZARRALUQUI	1:01:13
212	JOXE KRUTZ LABAKA USABIAGA	1:01:44
213	ARANTZA MAIZA BOTANZ	1:01:44
214	MAXI MURILLO PAREDES	1:01:46
215	OSCAR VARGA CONTRERAS	1:01:46
216	ESTEBAN MARTINEZ SALVADOR	1:02:09
217	ENEKO QUINTANILLA UNANUE	1:02:09
218	EVA OLAZAGOTIA SANSIENA	1:02:16
219	EZTITXU SUKUNTZA EIZMENDI	1:02:47
220	FERNANDO BAILE MENDO	1:02:53
221	CARMEN VEGAS LOPEZ	1:02:53
222	ASIER BERNARAS SARASOLA	1:03:42
223	ARANTXA ZUBILLAGA OLAZIREGI	1:03:43
224	KRIS ALVAREZ ALTUNA	1:04:18
225	ABEL GASTILLO GARCIA	1:04:19
226	IMANOL ARTEAGA AIZBITARTE	1:05:15
227	NAROA SALSAMENDI PAGOLA	1:05:15
228	IMANOL ALTUNA VEGAS	1:07:05
229	JON ARROYO ALKORTA	1:07:05
230	IRUNE ALZOLA ELIZONDO	1:07:29
231	JUAN KARLOS IGARRIZ BERAZA	1:08:02
232	AMAJA CALVO PRIETO	1:08:05
233	ANA LABAKA MAYOZ	1:11:04
234	TXEMA ENSAL KASTRESANA	1:13:49
235	GORKA GERENDY YEREGI	1:13:49
236	JUAN LUIS IEREKI EZEIZA	1:13:50
237	JABI FRAGA	1:13:50
238	MANU PELAEZ GAMEGO	1:13:51

Maite B ETELU

Gestoria

Aholkularitza

Aseguruak

Etxebizitza

administrazioa

Inmobiliariako

Zorionak korrikalari guztioi!

zerbitzuak



Aralar plaza 6, behea
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117



Aralar plaza 4, behea
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117



Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN
KARRETEEN errebelatua ORDU BETEAN
EZKONTZETAKO erreportajeak
ESTUDIOKO erreportajeak
makina DIGITALAK
30X90 neurrirainoko ANPLAZIO DIGITALAK
GEURE MARKOAK JARTZEN DITUGU



Zorionak korrikalari guztioi!



Lasarte-Oria Bai! krosa baino lehen ongi berotu zuten korrikalari guztiek.



Erketzeko dantzariak agurra egin zieten helduen eta elbarrien mailako korrikalarietara itzteararako gutxi falta zela.



1200 bat korrikalari izan ziren Okendo plazako itteera puntuan.

Krosa, festa paregabea

David Martin bigarrenenez garaile gizonetako mailan eta Amaia Ostolaza emakumeetan

TXINTXARRI

1103 heldu eta 400 haur inguru parte hartu zuten atzoko Lasarte-Oria Bai! Herri Krosean. Eguraldi paregabea izan genuen eta giroa ezin hobea zen. Ibilbidea ikusleez bete zen eta korrikalariak asko animatu zituzten.

Erketzeko dantzariak agurra dantzatu ostean, goizeko 10:30etan eman zitzaion hasiera lasterketa nagusiari.

Hasieratik irabazle

Irteeran lehenengo postuetan ikusi ahal izan genuen David Martin. Honela, lasai korri egin eta aurreneko kilometroetan dagoeneko lasarteoriarak 25 segunduko errenta hartu zituen.

Errekorra hausteko erritmoa zerraman denbora partzialak ikusita, baina azkeneko kilometroetarako indarrak gorde eta 33 minutu 36 segunduko denbora egin zuen. Era honetara, bigarrenenez irabazi du herritarrak krosa.

Emakume mailan eta elbarrituetan ere gauza bera gertatu zen.

Nesken kasuan, Amaia Ostolaza donostiarrak lehenengo minutuetan aurre hartu zuen eta helmugara 41 minutu eta 01 segunduko denbora eginaz iritsi zen.

Elbarrituenetan, berriz, Jose Antonio Iglesias oriotarra izan zen gailendu zena, 33 minutu eta 35 segunduko kronoarekin.

Kross Txikia

Helduen lasterketaren ostean, 12:00etan, haur eta gaztetxo-entxanda izan zen.

5 urtetik 15 urtera arteko 400 bat lasarteoriarrek bere trebezia erakutsi zuten VIII. Kross Txikia osatzen zuten txanda desberdinetan korrika egiten, baita helduen kroserako harrobia dagoela erakutsi ere.

Sailkapena eta argazkiak

XIII. edizio honetako sailkapen osoa eta argazkiak ikusteko Ostadar kirol taldeko web orrialdera jo dezakezue www.ostadarkf.org.

TXINTXARRIko web orrialdean ere, www.txintxarri.info, bihartik aurrera egongo dira argazkiak. •



Eguraldia lagun, giroa ezin hobea izan zen eta jende ugari egon zen korrikalariak animatzen.



Korrikalari bakoitzak bere erritmoa ezarri eta lasai korritu zituzten lehenengo kilometroak.



Irudian kroko irabazlea, David Martin lasarteoriarra. Honekin, bigarren urtez jarraian eskuratu du garaipena.



Honen erakusle, urtero lasterketari amaiera ematen dion koadrila dugu. Aurten etxeko andrez zihoazen eta korrikalariei jarraitzeko asko animatzen zituzten. Hauek bai sasoia eta umorea!



Emakumeetan berriz, Amaia Ostolaza donostiarrak izan zen garailea.



Patxi Fadrique lasarteoriarra ere indartsu ibili zen elbarriean mailan.



Jose Antonio Iglesias oriotarra izan zen elbarrietan garaile.



Eulogio de la Serna beterenoak ere sasoiaren dagoela erakutsi zuen.



Gazteek ere gozoz eta ilusioz heltzen diote lasterketari.

Gauza guztietarako jartzen badute horrelako intentzioa eta indarra, ez ditu inork gure txikiak geldituko.



Haur eta gazteek ere zortzigarren Kros Txikian ederki goatzeko aukera izan dute. Laurehun haur eta gazte hartu dute parte aurtengo edizioan. Txikiak kulturetxe ingurutik abiatu dira Okendora eta besteak berriz zirkuituari biraka aritu dira; adinaren arabeko hainbeste bira. Gero bakoitzak domina bana jaso zuten, beraz pozik etxera. Argazkiak ikusita, esan daiteke, kirolean erreleboa ziurtatuta dagoela, intentzioa behintzat jartzen diote.



Amaraun klubeko Lur, Marko eta Ezti aritu ziren dominak banatzen.

TABERNA Buenetxea KAFETEGIA

Proba itzazue
batido naturalak
gure terrazetan.

Txokolatea
txurroekin

Pintxoetan
aukera zabala



Aprobetxatu
zure apostua
hemen egiteko.

*Zorionak korrikalari
guztiori!*

*Ezkontza ondorengo festa
luzatu dezakezu gurean.*

Infusio
naturalak

Kafe bereziak:
*Irlandesa
eskozesa
kaputxinoa
bonboia*

Egunero

Erakusketa

ELISKARAREN MARATOIAK. Aurreko edizioetako argazkiak eta aurtengo edizioetako materiala ikusgai Jalgin, egun osoan.

Astelehena, 27

Hitzaldia

ELIKADURAKO NAHASMENDUEN DEFINIZIOA: JATORRIA ETA ZERGATIEI buruz hitz egingo dute Yolanda Iglesias eta Maddi Arrazola Osasunaren XVI. Jardunaldien barruan. Kulturetxean, 19:00etan.

Astearte, 28

Hitzaldia

PERTSONALITATEAREN NAHASMENDUEI buruz hitz egingo du Xabier Arrazola psikologoak Osasunaren XVI. Jardunaldien barruan. Kulturetxean, 19:00etan.

Asteazkena, 29

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUA ipuin-kontalariaren saio ederra eskainiko du etxeko txikientzat. Manuel Lekuona Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ



Osasun jardunaldiak martxan

Urtero bezala, aurtun ere astebez ospatuko dira Osasun Jardunaldiak Manuel Lekuona kulturetxean. Hitzaldi ugari eskainiko dira, horien artean elikaduraren nahasmenak, pertsonalitatearen nahasmenak, prostatako eta koloneko minbizia.

ASTE OSOAN ZEHAR, 19:00ETATIK AURRERA
KULTURETXEAN

Osteguna, 30

Hitzaldia

PROTATAKO MINBIZIA, EMAKUMEEN INKONTINENTZIA ETA SEXUALITATEA ORO HAR, Osasunaren XVI. Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Kontzertua

Tolosako XXII. Abesbatzen Jaialdiaren baitan, Norvegiako ADUR VOCAL ENSEMBLE abesbatzak kontzertua eskainiko du. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan, BIETARA

Ostirala, 31

KOLONEKO MINBIZIA: DIAGNOSTIKO GOIZTIARRAREN ESTUDIOA LASARTE-ORIAN, Osasunaren XVI. Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Astelehena, 3

Ipuin-kontalaria

IPUIN ZORAGARRIAK izango dira entzungai 4 eta 5 urte bitarteko haurrei zuzendua Pello Añorgaren eskutik. Manuel Lekuona Kulturetxeko haurren liburutegian 18:00etan.

EUSKARAZ

Eskutitzak

Lagun agurgarri hori:

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizut, nire eta buru naizen Udalaren ize-nean, Lasarte-Oriako Euskararen VII. Maratoian zehar egin duzun lanarengatik. Esfortzu hori gabe ezinezkoa izango litzateke ekitaldiak izan duen arrakasta.

Euskara euskaldun guztion ondarea da, eta bere etorkizuna gure komunitatea osatzen dugun pertsona eta instituzio guztion eguneroko lanaren arabera izango da. Udaletik esfortzu handia egiten ari gara gure udalerriaren esparru guztietan euskararen erabilera eta garapena posible egiteko, baina lasarteoriar bakoitzaren konpromisorik gabe arrakasta gutxiuko litzateke.

Horregatik, ilusioarekin hartzen ditugu euskara garatzen eta zabaltzen saiatzen diren ekimenak, konpromiso zintzo batetik eta udalerri osoari irekita. Hori dela eta, zazpigarrenez babestu dugu maratoia, Lasarte-Orian dagoen euskararen festa handiena.

Azpitarratu nahiko nuke aurtun egin den esfortzua udalerriko esparru ezberdinetako gero eta jende eta elkarte gehiago biltzeko. Guztiek ekarri dute beren harri-koskorra ondoan egiten dakiten horretan. Maratoi lasterketa bat irabazle bakar gisa euskara izan behar duena.

Azkenik, zortzikoteak, Udaleko Euskara sailak eta Ttakun Kultur Elkartek Euskararen VII. Maratoiaren arrakasta eta martxa ona ziurtatzeko egin duten esfortzua azpitarratu nahiko nuke.

Mila esker guztia-
rengatik eta zortzigar-
renaren bila.

Ana Urchueguia
Lasarte-Oriako
Udaleko alkatea

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik
13:00etara eta 17:00etatik
21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Eguberrietako loteria

Oztanbide auzo-elkartek eguberrietako loteria salgai jarri duela jakinarazi nahi du: 43.607 zenbakia. Hiru eurotako partizipazioak (loteria: 2,5 euro eta emaria 0,5 euro) Txema tabernan (Andapa kalean, Zumaburun) eta Coviran supermerkatuan (Oztaran emparantzan) erosi ahal izango dituzue. Edozein zalantza argitzeke, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefonoetara deitu dezakezue.

Katxalin Elkarteko loteria

Bularreko eta Ginekologiako Minbizia-eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkartek, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotako da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkartetako izango da. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBN

egin dezakete, Ganbo kalean.

1962an jaioetako enafaria

1962. urtean jaioetako lasarte-arentzat afari bat antolatu dugu Goiegin azaroaren 14rako. Interesatuak deitu dezakezue 19:00etatik aurrera ondoko telefono hauetara: Tel.: 672 138855 (Marian)/685 775968 (Idoia)/659 950363 (Rexu). Izena emateko azken eguna urriaren 31. Anima zaitetz!

Hidrogenoa eta erregai pilen inguruko jardunaldi teknikoa

Datorren urriaren 30ean Usurbilgo Lanbide Eskolan Hidrogeno eta Erregai Pilen inguruko jardunaldi tekniko bat ospatuko da. Bertan hidrogenoa zein pilen garapena, erabilpena eta proiektuen azterketa egingo da. Sarrera doan da baina parte hartzeko izena ematea ezinbestekoa da. Informazio gehiago :943354600 tlf.zenbakian

Eguberrietako loteria

Lasarte-Orriako elkartek, bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die, gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela. Erostekoa asmoa duenak elkartean egin dezake astelehenetik ostiralera 18:00aurrera abenduaren 7a arte, hau barne.

Dantzaren Lagunak taldea

Erketzek entsegu irekiak aurkeztu nahi ditu Dantzaren Lagunak taldearen bidez. 15 urtetik gorakoentzat daude bideratuak eta erromeriko dantzak landuko dituzte. Beraz, plazan gogoarekin begira ez geratzeko, orain da zure aukera. Urriaren 28tik aurrera, astearteko arratsaldeko 20:00etan bilduko dira Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Zumaburuko eraikinean. Animatu!

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Irudi berriarekin dator Ttakuntronik

- Berrikuntzen artean nagusia egun aldaketa: orain hilero lehen larunbatetan egingo da.
- DJei espazio berriak topatzea eta dantzatzeko musika jendeari hurbiltzea du helburu.

JON ALTUNA

Jarraipena izango du aurtengo denboraldian iaz estrenatu zen Ttakuntronik proiektuak. Hilean behin, larunbat gauean, Lasarteko lau aretotan aldi berean musika elektroniko saioak eskainiko dira. Denbora berberean musika jartzaile bat dago areto bakoitzean. Euskaraz garatzen da programazioa, inork ez dezan pentsa dantzatzeko musikak ez duela euskararekin bat egiten.

Lau areto horietan, musika jartzaile ezberdina izango da zuzenean musika jartzen. Egitasmoaren "Lasarte-Oria dantzaleku" da, beraz helburua Lasarte doaneko dantzaleku bihurtzea, horrela herritarrek herrian geratzeko modua izan dezaten.

Jokin Telleria bultzatzaileak eman digu egitasmoaren berri. "Azaroak 1ean hasiko da bigarren denboraldia eta zenbait

aldaketarekin dator. Hileko azken larunbatean egiten genuen, eta aurtun lehenengo larunbatean egingo dugu. Hilabete hasieran poltsikoak beteago ditu edonork eta errazago aterako da kalera".

Irudi eta ideia berriak

laz egitasmoan izan ziren Jalgi, Siglo 20 eta Obelix taberneak segituko dute. Laugarrena berria izango da, baina oraindik antolatzaileek ez dute aurreratu eta beraz musika elektroniko zaleek azaroaren 1ean jakingo dute. Beste berrikuntza bat Ttakuntronik-en irudia izango da. Berria estrenatuko dute eta nikiak egingo dira irudi berri horrekin.

Blaki hasiko da, bestalde, Ttakuntronik-en lanean; 20 urte daramatza disko jartzaileen munduan eta Siglo 20n asko egoten den diseñatzailearen esperientzia zein ideiei berriei aberastuko dute Ttakuntronik.



Irudi, toki eta babesle berria, baina betiko filosofia du Ttakuntronik-ek.

Ttakuntronik-ek ez du sekula alde batera utzi berri-tzen joateko asmoa eta sponsor berrien bila ari dira bultzatzaileak. "Zenbat eta

diru iturri gehiago izan, hobe, dj-ei ordaintzeko ere gehiago izango da, eta baita promozio zabalagoa egiteko ere", esan digu Jokin Telleriak.

Budweiser-ekin aritu ziren iaz, aurtun Burn edari energetikoa gehituko da babesleen zerrendara, eta beste edari banatzaile batzuekin hitz egingen ari dira.

Filosofia berezia

Ttakuntronik-ek bere filosofia-ri eutsiko dio, Jokin Telleriak adierazi digunez: hau da, "batetik DJentzat eta Sound Sistententzat espazio berriak lortzea, bestetik dantzatzeko musika normalizatzea eta musika berri alternatibo hauek jendeari hurbiltzea eta, azkenik, euskara musika hauekin batzea".

Izena bera ere ttakuntronik dauka eta programazio guztia euskaraz garatzen da. Jokinen ustez "askotan dirudi musika egiteko modu hau ez doala euskararekin bat, baina promozio guztia euskaraz egiten da. Uste horrekin apurtzen du beraz".



Geltoki kalea 4

Tel.: 943 377024

LASARTE-ORIA



**Zorionak
korrikalari
guztioi!**